



# elika

Fundación Vasca para la  
Seguridad Agroalimentaria  
Nekazaritzako Elikagaien  
Segurtasunerako  
Euskal Fundazioa



# RASFF TXOSTENA

## ELIKAGAIAK

## ALERTAK - JAKINARAZPENAK

Jakinarazpenen kategorizazioa

Jakinarazpenen jatorria


Kutsadura iturrien sailkapena

Kutsatzaile nagusiak eta inplikaturako elikagaiak

**2023ko BIGARREN LAUHILEKOA**


**JAKINARAPENEN KATEGORIZAZIOA**

2023ko bigarren lauhilekoan elikagaiei buruzko 1434 jakinarazpen izan dira. Horietatik 388 alertak izan dira (%27), 560 informazio-jakinazpenak (%39) eta 486 mugan egin diren ukapenak (%34).



**JAKINARAZPENEN JATORRIA**

Kutsatutako produktuen jatorrizko herrialdeak hurrengoak izan dira:




Asiari dagokionez, kutsatzaileen % **30a Turkiakoak** eta % **22a Indiakoak**. Europari dagokionez, jakinarazpen gehien sortu dituzten herrialdea **Polonia** izan da, % **16**arekin, bigarren **Espainia** izan delarik % **11**arekin. **Afrikaren** kasuan, **Egiptok**, jakinarazpenen %**34** izan ditu eta **Amerikaren** kasuan **EEBB %37,5**arekin dira jakinarazpen gehien sortu dituztenak.

### **KUTSADURA ITURRIEN SAILKAPENA**

2023ko 2. lauhilekoan zehar, Europako Informazio Azkarraren Sistemak (RASFF) **elikagaien 1434 alerta eta jakinarazpen** berri eman du. Jakinarazpen guztietatik, kutsadura iturrirei dagozkien zenbatekoak honako hauek dira:

Kutsadura iturria	%
Hondakinak	% 24,5
Kutsadura biologikoa	% 22,5
Iruzurrak	% 18,5
Toxiko naturalak	% 14
Kutsadura kimikoa	% 7,5
Metal astunak	% 4,5
Produktuaren egoera higieniko txarra	% 4,5
Kutsadura fisikoa	% 4



## **KUTSATZAILE NAGUSIAK ETA INPLIKATUTAKO ELIKAGAIK**

Toxiko naturalek eragindako kutsaduren artean, kasu gehienetan, % 58an, kutsadura **AFLATOXINEK** eragindakoa da eta, horrelakoetan **KAKAHUETEA** kutsaduren % 34a eragin du. Kasu gehienetan, % 36an, kakahuetea **EEBB**etatik zetorren. **PISTATXOA** azaltzen da bigarren postuan, %20arekin. Kasu honetan ere, **EEBB**etako jatorriarekin %57an.

**Kutsadura biologikoei** dagokienez, **SALMONELEK** kutsaduren %56,5a eragin ditu. *Salmonella sp* da talde honetako protagonista nagusia kasuen % 75,5an. **OILASKOA** izan da produktu protagonista %42,5eko kasuetan, %50eko kasuetan **POLONIA** jatorria zelarrik. Beste salmonelei dagokienez, %17,5a *Salmonella enteritidis* dagokio. **OILASKOAK** eragin ditu kasuen % 84,5a eta % 81,5eko kasuetan **POLONIA** izan da jatorria eta % 7a *Salmonella typhimuriumi*, kasu honetan **ETXEKO HEGAZTIAK** protagonista direlarik (%77a).

Kutsadura biologikoekin jarraituz, *Listeria monocytogenes* bakteriak jakinarazpenen %14,5a eragin ditu, **GAZTA mota desberdinak** %22an inplikatuta egonda, **FRANTZIA** jatorrikoa %70ean..

Fitosanitarioen eta sendagaien hondakinei dagokienez, **FITOSANITARIOAK** %95,5 izan dira. Nabarmentzen dira, alde batetik, **hainbat fitosanitarioen** presentziagatiko jakinarazpenak (%30), eta, bestetik, Europan debekatuta dagoen **KLORPIRIFOSA**, jakinarazpenen %28an dagoena. Lehenengo kasuan, ez dago gehiegi nabarmentzen den produkturik, nahiz eta piperrak eta arroza gehiago jakinaraztea, baina klorpirifosaren kasuan, alde batetik **zitriko desberdinak** (limoiak, laranja, mandarinak eta pomeloak) izan dira kasuen %24, batez ere **TURKIA** jatorrikoak eta bestetik **ekilore eta soja -olioek** kasuen %24 eragin dituzte. **UKRAINAKO** jatorria zuten %100en kasuek.

Sarearen bidez jakinarazitako **iruzur** guztietatik, % 50 **debekatutako substantziengatik** izan dira edo **baimendu gabeko osagai berriak** hainbat elikagaitan. **ELIKADURA OSAGARRIAK** nabarmentzen dira kasuen % 81ekin, Internet bidez saldu baitira kasuen % 34.

Bestalde,%23,5 **ETIKETAN ALERGENOAK EZ DEKLARATZEARI** dagozkie.

